



Merkatuaren segmentazioa:

“ZUGAZ” aplikazioak izango dituen bezeroak, gehien bat, nerabeak izango dira, edozein adinetakoak, bullying-a sufritzen dutenak beraiek baitira. Nerabeak izango dira bezero nagusiak zeren nerabezaroan gertatzen dira bullying-eko kasu gehienak; baina ez da beharrezkoa hau sufritzea, mota guztietako eta leku guztietako nerabeak parte har dezakete, hau da, esan bezala, ez da beharrezkoa bullying-a sufritzea, bakarrik informatu eta lagundu nahi duten nerabeak ere ongietorriak izango dira.

Gainera, oso onuragarria izango da haientzat, askoz errazagoa izango dutelako aplikazioaren bidez salatzea edo arazo, zalantza edo egoera bat galdetzea, edo horri buruz aztertzea fisikoki egitea baino. Batzuetan fisikoki egin behar dutenean ez dute egiten edo ostopoak ipintzen dituzte ez egiteko, aplikazioaren erretasunarekin hori ekidi daiteke eta bullying-eko kasu gehiago konpondu ahal izango lirateke.

Nahiz eta nerabeei zuzenduta egon, beste bezero-talde batzuk ere egon daitezke; hala nola, nerabeen gurasoak, edo nerabeekin lan egiten duten jendea (irakasleak, psikologoak, psikiatrak...) hauek batez ere informazioa eta datuak biltzeko erabiliko dute, informazio eta datu hauekin beste zenbait nerabe lagundu ahal izateko.

Bi bezero talde mota egon arren, gure aplikazioaren bezero xedea nerabeak izango dira, haiek baitira gure prioritatea, esan bezala, gure helburua hauek laguntzea eta gai honekiko gehiago informatzea baita.